



## ORDAINKETA ZATIKATUA BIZKAIKO EDO GIPUZKOAKO FORU ARAUDIAREN PEAN DAUDEN ENTITATEENTZAT

---

**Araudia:** Sozietateen gaineko zergaren foru arauak (11/2013 eta 2/2014, hurrenez hurren), 130. bis artikulua.

**Zergadunak:** enpresa ertainak eta handiak. Foru arau honetako 13. artikuluan araututakoaren arabera enpresa txiki edo mikroenpresatzat hartzen diren entitateek ez dute ordainketa zatikatua aurkeztu beharko, ez eta zerga foru arau horretako 56. artikuluko 4. eta 5. ataletan ezarritako karga tasetan (%1ean eta % 0an, hurrenez hurren) ordaintzen duten entitateek ere.

**Epea:** urriaren 1etik 25era.

**Zenbatekoa:** (Zerga oinarria \* % 5) - atxikipenak eta konturako sarrerak.

- Zerga oinarria: aitortena egiteko epea urriaren 1ean igarota daukan azken zergaldikoa. Epemugara heldutako azken zergaldikoa urtebete baino laburragoa izanez gero, zerga oinarria 12 hilabeteko epealdia osatzeraino gehituko da. Aitorpenik ez bada aurkeztu, horretara behartuta egonez gero, aurkeztutako azken aitortpeneko zerga oinarria edo, hala dagokinean, egindako azken likidaziokoa hartuko da erreferentziazat.
- Atxikipenak eta konturako diru sarrerak: zergadunaren diru sarreren kontura egindako sarrerak eta atxikipenak kenduko zaizkio, delako zergaldiari dagozkionak.

Ordainketa zatikatua lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan egin behar duten entitateek, zergaren azken likidazio-aitorpenean zehaztutako proportzioa aplikatuko dute. Hala ere, beste proportzio bat aplikatu ahal izango dute 37/2013 Foru Arauaren 130.6 artikuluan jasotzen diren kasuetan.



### **Ereduak: 203 eta 223**

203 eredua (banakako araubidean) eta 223 eredua (zerga baterakuntzako araubidean), entitateari aplikatzekoa zaion araudiaren arabera eskumena duen administrazioak onartutako laguntza programa egokiaren bidez bete behar dira.

### **Aurkezpena: telematikoa**

203 eta 223 ereduak, nahitaez, telematikoki aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoen bidez.

Aurkezteko prozedura: [www.araba.eus](http://www.araba.eus) - Egoitza Elektronikorako sarrera - Banakako aitortpenen aurkezpena - Izapidetu online - Ziurtagiri digitalaren bidez identifikatzea - Sortu eta bidali - Aitortpenak sortu eta bidali - Eredua bidali.

### **Laguntza zerbitzua:**

203 eta 223 ereduaren aurkezpen telematikoaz zalantzarik baduzu, dei egin dezakezu [Egoitza Elektronikoko Laguntza Zerbitzura](#):

- Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 902 100 513
- Posta elektronikoa: [diputaciondigital@araba.eus](mailto:diputaciondigital@araba.eus)

Zerga arloko edozein zalantzatarako, gure [Zerga Argibideetarako Zerbitzuarekin](#) harremanetan jar zaitezke:

- Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 945 18 15 55
- Posta elektronikoa: [consultasfiscales@araba.eus](mailto:consultasfiscales@araba.eus)